Udalerrian obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez lurzoru publikoaren erabilera berezia arautzeko ordenantza idatzi AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA bideratzeko iragarkia.

39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– berrikuntzak ezarri ditu Administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiterakoan; besteak beste, herritarren iritzia eta etorkizuneko arauak ustez ukitu ahal dituen antolakunde ordezkagarrienen iritzia jasotzeko beharra.
39/2015 Legeak –urriaren 1ekoak, Administrazioen Publikoen Prozedura Erkideari buruzkoak– bere 133 artikuluan hau xedatzen du:

> *"1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:*
> *a.- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
> *b.- Arau hori onestea, beharrezko eta egoki den.*
> *c.- Arauaren helburuak.*
> *d.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak."*

Bergarako Udalaren asmoa da udalerrian obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez lurzoru publikoaren erabilera berezia arautzeko ordenantza onartzea.
Bergarako Udalak erabaki du aurretiazko kontsulta publikoa burutzea, udalerrian obrak burutzean edukiontzi, hesi babestaile, aldamio eta gainontzeko ekipamendu eta materialez lurzoru publikoaren erabilera berezia arautzeko ordenantza onartu aurretik eta 39/2015 Legeak ezartzen duen prozedura betetzeko.

Beraz, herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritziz gero, parte hartu ahal izango dute ekarpenak aurkeztuz **2018ko maiatzaren 4ra arte**, bi bide hauen bidez:

- Posta elektronikoaren postontzi honen bidez: hirigintza@bergara.eus .
- Udalaren Erregistro Orokorrean – (San Martin Agirre plaza 1) aurkeztutako iradokizunaren bidez.

## EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK.

Bergarako Udalak Ordenantza honen bidez nahi du Bergarako eremu publikoan edo erabilera publikoa duten eremuetan izaera pribatua duten zenbait okupazio arautzea; hain zuzen ere, eremu horien erabilera publikoa kaltetua izan ez dadin, lurzoru publikoak, eta erabilera publikoa duten eremu pribatuek ere, legez ezarrita duten erregimen juridikoa errespetatzea eta erabilera pribatuarekin bateragarri diren heinean okupazio hori arautzea.

Ordenantza honen bidez, eremu publikoaren erabilerarekin eta zehazki okupazioarekin ematen diren arazoak konpondu eta bideratu nahi ditu Udalak.

## ORDENANTZA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA.

Aurreko puntuan adierazten da funtsean ordenantza honen arrazoia eta beharra. Udalerrian obrak burutzean egiten den bide publikoaren erabilera pribatua edo berezia (okupazioa), bertan jartzen direnean edukiontziak, hesi babestaileak, aldamioak, garabi-kamioia, masa-siloak edo gainontzeko elementuak arautzeaz gain, okupatutako gune publikoa garbitzeko, babesteko eta konpontzeko neurriak ere arautu nahi dira.
Aurretiazko kontsulta bukatu ondoren eta webgunearen bitartez egiten den jendaurrekoak ematen duenarekin, Udalak ordenantza Udalbatzara eramango du bere onarpenerako. Ebazpen hau eman eta gero, onarpenari dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, 30 eguneko epez alegazioak, erreklamazioak edota iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Jarraian, jendaurrekoan aurkeztutako alegazio, erreklamazio edota iradokizunei Udalak erantzunez behin betiko onarpena emango dio ordenantzari, hala badagokio. Alegazio, erreklamazio edota iradokizunik aurkeztuko ez balitz behin betikotzat onartuta ulertuko da ordenantza, aipatutako izapideak burutu ondoren betiere.

## ARAUAREN HELBURUAK

Ordenantza hau erabilera publikokoak diren udalerriko toki guztietarako aplika daiteke (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.), titularitate publikokoak zein erabilera publikoa duten eremu pribatukoak izan. Horrenbestez, eremu publikoaren erabilerak eragiten dituen arazoak konpondu nahi ditu ordenantza honek funtsean.

Ordenantzan, besteak beste, okupaziorako egin beharreko eskaera eta dagokion izapidea zehazten da. Halaber, eremu publikoko kale okupazioari dagokion ordainketa ere zehazten da ordenantzan, arau-hausteak dakartzan zigorrekin batera.

## EGON DAITEZKEEN BESTE KONPONBIDE BATZUK, ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK.

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileko 56. artikuluak eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluak xedatutakoaren arabera, araudi hau, jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Jendaurreko epea bukatutakoan, dagokion behin betiko erabakia hartu behar da, ebatzi behar dira aurkeztu diren erreklamazioak eta onartu egin behar da behin-behineko erabakian agertzen den ordenantzaren behin betiko idazketa, haren ezabaketa edo agertzen diren aldaketak. Baldin eta ez bada erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onartutzat joko da ordura arte behin-behineko zen erabakia. Behin betiko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da eta ez da indarrean sartuko harik eta argitaratze hori egiten den arte eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70-2 artikuluak ezarritako epea bete arte.

Argitaratze data: 2018/04/10.

Anuncio por el que se articula la CONSULTA PÚBLICA PREVIA a la redacción de la ordenanza. reguladora del uso especial de suelo público con contenedores, vallados protectores, andamios y demás equipos y materiales durante la ejecución de obras en el municipio

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, sobre Procedimiento Común de las Administraciones Públicas, ha establecido una serie de innovaciones en cuanto a la iniciativa legislativa de las administraciones públicas y la elaboración de reglamentos; entre otras, la necesidad de recabar la opinión de la ciudadanía y de las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.
La Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Común de las Administraciones Públicas, en su artículo 133 dispone lo siguiente:

> *"1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*
> *a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
> *b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
> *c) Los objetivos de la norma.*
> *d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias."*

El objetivo del Ayuntamiento de Bergara es aprobar la ordenanza reguladora del uso especial de suelo público con contenedores, vallados protectores, andamios y demás equipos y materiales durante la ejecución de obras en el municipio.
El Ayuntamiento de Bergara, al objeto de cumplir el procedimiento establecido por la Ley 39/2015, ha decidido llevar a cabo una consulta pública previa antes de la aprobación de la ordenanza reguladora del uso especial de suelo público con contenedores, vallados protectores, andamios y demás equipos y materiales durante la ejecución de obras en el municipio.

Por lo que la ciudadanía, organizaciones y asociaciones que así lo consideren, podrán participar remitiendo sus contribuciones a través de los dos siguientes medios **hasta el 4 de mayo de 2018**:

- A través del siguiente buzón de correo electrónico: hirigintza@bergara.eus .
- Presentación de las sugerencias en el Registro de Entrada del Ayuntamiento – (Plaza San Martin de Agirre 1)

## PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR CON LA INICIATIVA.

El Ayuntamiento de Bergara, mediante esta ordenanza, pretende regular diversas ocupaciones de carácter privado en espacios públicos o de uso público de Bergara, a fin de no menoscabar la utilización pública de dichos espacios, respetar el régimen jurídico legalmente establecido para el suelo público y para el suelo privado de uso

público, y regular dicha ocupación en la medida en que sea compatible con la utilización privada.

Con esta ordenanza, el Ayuntamiento desea solucionar y canalizar los problemas que surgen con el uso y concretamente con la ocupación del espacio público.

## NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA

En el punto anterior queda expuesto, básicamente, el motivo y necesidad de esta ordenanza. Además de regular el uso privado o especial (ocupación) de la vía pública con contenedores, vallados protectores, andamios, camión-grúa, silos de mortero y demás elementos durante la ejecución de obras en el municipio, se pretenden regular también las medidas de limpieza, protección y reparación del espacio público ocupado. Una vez finalizada la consulta previa, y con las aportaciones que deriven de la publicación realizada mediante la página web, el Ayuntamiento elevará la ordenanza al Pleno Municipal para su aprobación. Una vez adoptado este acuerdo, se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el anuncio correspondiente a la aprobación y se abrirá un plazo de 30 días para la presentación de alegaciones, reclamaciones o sugerencias. A continuación, el Ayuntamiento, dando respuesta a las alegaciones, reclamaciones o sugerencias presentadas en la exposición pública, dictará, si procede, la aprobación definitiva de la ordenanza. En caso de no presentarse alegaciones, reclamaciones o sugerencias, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente, una vez cumplimentados los trámites señalados.

## OBJETIVOS DE LA NORMA

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios del municipio con uso público (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.), sean de titularidad pública o de titularidad privada con uso público. Por tanto, esta ordenanza pretende fundamentalmente solucionar los problemas derivados del uso del espacio público.

En la ordenanza, entre otros puntos, se establece la solicitud a realizar y la tramitación correspondiente a la ocupación. Así mismo, se establece en la ordenanza el pago que corresponde a la ocupación viaria del espacio público, junto con las sanciones que acarrean las infracciones a la misma.

## POSIBLES SOLUCIONES ALTERNATIVAS, REGULATORIAS O NO REGULATORIAS

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 56 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, y en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, esta normativa se someterá a exposición pública durante 30 días hábiles –a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa–, para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

Una vez finalizado el plazo de exposición pública, se ha de adoptar el acuerdo definitivo correspondiente, resolviendo las reclamaciones presentadas y aprobando la redacción definitiva de la ordenanza recogida en el acuerdo provisional, su derogación o las modificaciones a que hubiera lugar. En caso de no haberse presentado reclamaciones, se considerará definitivamente aprobado el acuerdo hasta entonces provisional. El acuerdo definitivo, que será publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, no entrará en

vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación y se haya cumplido el plazo establecido por el artículo 70-1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Fecha de publicación: 10/04/2018